

DECRETO NUM. 1336/19:

Antecedentes de Hecho

Considerando que mediante Decretos nº 3134/17 de 12 de diciembre (BOB nº 242 de 21 de diciembre) y nº 3437/18 de 10 de diciembre (BOB nº 244, de 20 de diciembre), se aprobaron las Ofertas de Empleo Público del Ayuntamiento de Leioa, correspondientes a los años 2017 y 2018 respectivamente. En dichas resoluciones se ofertaban un total, entre ambas, de 7 plazas de Agente de Escala Básica de Policía Local.

Resultando que, como resultado de la negociación con los representantes del personal, se acordó la necesidad de seguir los trámites oportunos para continuar con el expediente administrativo.

Fundamentos de Derecho

Considerando las negociaciones mantenidas al respecto con la representación del personal, en varias sesiones, en base a lo establecido en el art. 37 TREBEP, en relación con el art. 15 del mismo texto legal y en relación también con el art. 95 LBRL.

Considerando lo dispuesto en el artículo 56.1 de la Ley 4/1192, de 17 de julio, de Policía del País Vasco, relativo al ingreso en los cuerpos de Policía del País Vasco, en relación con lo establecido sobre el procedimiento de selección en el Decreto 315/1994 de 19 de julio, por el que se aprueba el reglamento de selección y formación de la Policía del País Vasco.

Considerando las facultades otorgadas a la Alcaldía en el artículo 21.1.h) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases de Régimen Local.


De conformidad con la exposición fáctica y jurídica que antecede, se eleva propuesta a la Alcaldía en orden a que se disponga

PRIMERO: Aprobar la convocatoria y las bases que han de regirla, para la provisión definitiva, como funcionarios de carrera y mediante el sistema de concurso-oposición libre, de siete plazas vacantes de Agente de la Policía Local, dentro de la plantilla orgánica de personal de este Ayuntamiento.

SEGUNDO: Exponer al público el expediente de su razón, previo anuncio en los Boletines Oficiales pertinentes.

TERCERO: Dar cuenta del presente Decreto a los diferentes Departamentos del Ayuntamiento, para su conocimiento y efectos oportunos.

PROPONENTE
TAE LETRADO DE RRHH Y CONTRATACION
Alexander Mendiola Castro



Atendiendo a la exposición fáctica y jurídica de la propuesta que antecede, y en virtud de las atribuciones que le confiere la legislación vigente, resuelve y firma, de conformidad con la literalidad de lo propuesto, la Sra Alcaldesa, D^a M^a Carmen Urbieta González, en Leioa, a diecisiete de abril de dos mil diecinueve, de todo lo cual yo, la Secretaria General, doy fe.

LA ALCALDESA,



Fdo.: M^a Carmen Urbieta González.



LA SECRETARIA.,



Fdo.: Chiara Camarón Pacheco

Oposizio-lehiaketa askearen bidez, Leioako Udaleko zazpi (7) udaltzain-lanpostu huts betetzeko deialdiaren OINARRIAK.

Lehena.- Deialdiaren xedea.

Deialdi honen xedea da karrerako funtzionario gisa, eta oposizio-lehiaketa askearen bidez, Udaltzaingoko zazpi (7) agente-lanpostu betetzea, 2017 eta 2018ko lan-eskaintza publikoei dagozkienak eta Udal honetako funtzionario-plantillan hutsik daudenak. Lanpostuak Administrazio Bereziko Eskalakoak, Zerbitzu Berezien Azpieskalakoak, eta Udaltzaingo Klasekoak dira, C Lanbide Sailkapeneko Taldekoak, C-2 Azpitaldekoak (C-1, lanpostuaz jabetu ondoren, eta Euskal Herriko Poliziari buruzko Legeko 118.2 artikulua zehaztutako ondorioetarako); lanpostu-mailako osagarria: 16; berariazko osagarria: 26.775,55 euro.

Hautapen-prozesurako, deialdiko lanpostu guztiak C2 Taldekotzat hartuko dira. Hala ere, oinarrizko sarbide-ikastaroa eta praktikaldia gaingitu ondoren, udaltzaingoko kidegoetako oinarrizko eskalako funtzionario izendatutakoak euskal administrazio publikoetako funtzionarioen sailkapeneko C1 Taldean sailkatuko dira. Sailkapen horren ondorio ekonomiko eta administratiboak toki-erakundeen mendeko polizia-kidegoen eremura mugatuko dira soil-soilik, eta ez du berekin ekarriko inolako baliokidetasun edo aitormenik egitea arlo akademikoan, irakaskuntzarenean edo hezkuntzarenean.

Betetzekoak diren udaltzain-lanpostu hutsetatik bostek (5) 2. hizkuntza-eskakizuna dute esleitura, nahitaezkoa eta nahitaezotasun-data igarotakoa; beste biek (2), aldiz, 2. hizkuntza-eskakizuna dute, zehaztutako nahitaezotasun-datarik gabekoa.

Lanaldia Udalak ezarriko du urtero; edonola ere, Udaltzaingoaren izaera eta behar zehatzak kontuan hartuko dira.

Hautapen-sistema osatuko da, hautapen-prozesuaren beste fase bat izanik, betiere, prestakuntza-ikastaro bat eta praktikaldi bat ginez.

Bigarrena.— Izangaiak bete beharreko baldintzak

Baldintza hauek bete beharko dira hautapen-prozeduran onartua izateko eta parte hartzeko:

a) Espainiako nazionalitatea izatea.

b) 18 urte izatea.

c) Gutxienez, gizonezkoek 1,65eko garaiera eta emakumezkoek 1,60koa izatea.

d) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gradudun-titulua edo baliokidea izatea, edo beste edozein, goragoko maila batekoa.

e) Otsailaren 17ko 36/2004 Dekretuaren eranskinean (Euskal Herriko Poliziaren hautaketa eta prestakuntza-araudia onartzen duen Dekretua bigarrenez aldatzen duena) jasotzen den medikuntzako bazterketen taulan sarturik ez egotea, Korporazioak horretarako esleitutako medikuntza-zerbitzuek hala egiaztaturik, egoki iritzitako osasun-azterketak egin eta gero.

f) Dolozko delitu bat egiteagatik kondenatua ez izatea, Administrazio Publikoaren zerbitzutik diziiplina-espediente bidez banandua ez izatea, eta funtzio publikoak betetzeko desgaikuntzarik ez izatea. Aplikagarria izango da, hala ere, errehabilitazioaren onura, zigor- eta administrazio-arloko arauen arabera, baldin izangaiak agiri ofizial bidez egiaztatzen badu hori hala dela.

g) Euskal Autonomia Erkidegoko poliziaren bateko edo Estatuaren segurtasun-indar eta -kidegoetako kide izateko hautapen-prozesuren batetik baztertua ez izana arau-hauste larri edo oso larri bat egiteagatik, salbu eta arau-haustearen preskripzio-epearen parekoa den epe bat igaro bada, prozesutik baztertzeko deklarazioa egin zen egunetik aurrera zenbatuta.

h) B klaseko ibilgailuak gidatzeko baimen administratiboa izatea, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denerako. Arestian aipatutako baimenek une oro egon beharko dute indarrean, haiek eskatzen direnetik aurrera, baimenok eten edo kendu gabe eta gidatzeko eskubideaz gabetu gabe, halako egintzak administratiboak zein judizialak izan, eta esleitutako puntu guztiak galdu gabe, halaber.

i) Indarrean den araudian zehaztutako ezgaitasun nahiz bateraezintasuneko kasuetakoren batean ez egotea.

j) 2. hizkuntza-eskakizuna izatea, nahitaezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak betetzeko, edo hautapen-prozesu honetan, helburu horretarako, egitera deitutako egiaztatze-probak gainditzea. Baldintza hau betetzeko data izango da hautapen-prozesu honetako hizkuntza-eskakizuna egiaztatze proba egiten den eguna.

k) Eskabidea aurkeztuz, ondorengo konpromisoak norberaren gain hartzea, lortu nahi den lanpostuaren eginkizunak aurrera eramatean:

k.1) Armak aldean eramatea eta indarrean den legedian aurreikusitako kasuetan erabiltzea.

k.2) Poliziaren uniforme, hornidura eta ekipamenduari ez dagozkien jantziak, apaingarriak eta sinboloak agertzeari uko egitea.

k.3) Polizia-zerbitzu publikoa ematean, erlijioaren, ideologiaren edo kontzientziaren arloko sinesmenei lotutako edozein praktikari uko egitea, halakoak zerbitzuarekin bateraezinak edo zerbitzua aurrera eramateko kaltegarriak direnean, ordenamendu juridikoan ezarritakoaren ildotik.

k.4) Polizia-ibilgailuak gidatzea.

k.5) Oro har, udaltzain orori dagozkion eginkizunak betetzea, ordenamendu juridikoan eta zerbitzu publikoan oinarrituta, lege zinkaturiko Deontologia Kodea hertsiki betez.

Eskabideak aurkezteko epea bukatzean eduki beharko dituzte beteta aurreko atalean eskaturiko baldintzak prozeduran parte hartu nahi dutenek, j) letran ezarritako salbuespenarekin, eta baldintzok betetzen jarraitu beharko dute Udaltzaingoko oinarritzko eskalako agente-kategoriarekin karrerako funtzionario izendatzeko unera arte, halakoak egiaztatze prozedura-fasea gorabehera.

Hautapen-prozesuan parte hartzea borondatezkoa da, eta horrek inplikatu du, hala dagokionean, proba psikoteknikoak nahiz nortasun-probak egiteko adostasuna ematea, proba horiek, beste faktore batzuen artean, balioztapenerako faktore bat izango direla onartuta, oinarri hauetan ezarritakoarekin bat etorruta.

Hautapen-prozesu honetako izangaiek berariazko adostasuna adierazten dute, kontrakoa aditzera eman ezean, haien datu pertsonalak oinarri hauetan ezarritako forman eta helburuarekin tratatzeko.

Oinarri hauetan jasotako proba fisikoetara aurkezte soilarekin, izangaiek erabateko erantzukizuna hartuko dute beren osotasun fisikoaren gain, eta Korporazio hau zein Kalifikazio Epaimahaia erantzukizun orotatik libre geratuko dira probak egitean gertatzen diren lesioengatik, halakorik gertatzen baldin bada.

Hirugarrena.—Eskabideak

Dagokion hautapen-prozesuan parte hartzea eskatzeko eskabideetan, izangaiek deialdiaren oinarrietan eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute, eta eskabideok bulego-ordutegian aurkeztuko dira Udalaren HAZn, alkate-lehendakariari zuzenduta, 20 egun balioduneko epean, deialdiaren iragarkia *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Halaber, urriaren 1eko 39/2015 Legeko (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena) 16.4 artikuluan adierazitako herri-administrazioen erregistroetan aurkeztu ahalko dira eskabideak. Eskabideak alkate-lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta dagokion funtzionarioak data eta zigilua jarri beharko die, eskabideak aurkezteko epearen barruan. Hautemandako egitezko akatsak edozein unetan zuzendu ahalko dira, ofizioz edo interesdunaren eskariz.

Izangaiek adierazi beharko dute hizkuntza-eskakizuna ezarrita ala ezarri gabe duten lanpostuetara aurkezten diren, edo, bestela, bi eretako lanpostuetara aurkezten direla.

Izangaiek eskabidean emaniko informazio guztia fitxategi batean sartuko da, eta azken horren erabilera hautapen-prozesua kudeatzeko baino ez da izango. Fitxategi horren erabilera eta funtzionamendua abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren (Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa) eta otsailaren 25eko 2/2004 legearen (Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa) xedapenen arabera izango dira.

Eskabidearekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira:

- NANaren fotokopia.
- Deialdian parte hartzeko eskatzen den tituluaren fotokopia.
- Gidabaimenen fotokopia.
- Eskatzen den hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen duten euskara-ziurtagiri edo tituluetakoa bat, halakoa eskatzen denean, euskara-azterketa egiteko salbuetsita geratzeko.

Izangaiek eskabidean adierazi beharko dute probak zein hizkuntzatan egin nahi dituzten, euskaraz ala gaztelaniaz. Atal horretan ezer adierazten ez bada, lehenespenez probak gaztelaniaz egingo direla ulertuko da. Nolanahi ere, gaitasun psikologikoei buruzko probak egingo dira halakoak diseinaturik dauden hizkuntzan edo hizkuntzetan.

Halaber, izangaiek euskarazko hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probetara aurkeztu nahi badute, baldintza betetzeko zein merezimenduetatik edukitzeko, beren eskabidean adierazita utzi beharko dute, eta ez da onartuko proba horietan parte har dezaten, eskabideak aurkezteko epearen barruan hala adierazi ezean.

Azkenik, izangaiek alegatutako merezimenduen adierazpen bat erantsiko diote eskabideari, halakoak behar beste egiaztatzen dituzten agiriekin batera (kopia konpultsatuta). Eskabideak aurkezteko epearen barruan alegatu eta egiaztatu diren merezimenduetatik at ezingo da besterik balioztatu, ez eta epe horren barruan alegatuta egon arren, epea bukatu eta gero egiaztatzen direnak ere.

Laugarrena.—Izangaiek onartzea

Eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan, alkate-lehendakariak izangai onartuen eta ez onartuen behin-behineko zerrenda onartzeko ebazpena emango du. Ebazpen hori *Bizkaiko Aldizkari Ofizialean* argitaratuko da, eta erakundearen iragarki-oholean eta webgunean jarriko da jendaurrean. Behin-behineko zerrendak aditzera emango du, onartu ez den izangai bakoitzari dagokionez, zer arrazoik eragin duten ez onartzea, eta hamar (10) egun balioduneko epe bat emango du erreklamazioak egiteko eta eskabideen akatsak zuzentzeko, halakorik baldin badu, hori egin ezean eskabidea beste izapiderik gabe artxibatuko dela ohartarazita. Epe hori bukatu, eta erreklamaziorik aurkeztu ez bada, behin-behineko zerrenda zuzenean behin

betiko izatera igaroko da. Erreklamaziorik aurkeztu bada, erreklamazioak baietsi edo ezetsi egingo dira behin betiko zerrenda onartzen duen beste ebazpen batean, eta azken hori *Bizkaiko Aldizkari Ofizialean* eta udalaren iragarki oholean zein webgunean argitaratuko da.

Ebazpen horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren aurrean, bi hilabeteko epean, onartuen eta ez onartuen zerrenda *Bizkaiko Aldizkari Ofizialean* argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, eta aukerako berraztertze errekurtsoa ere aurkeztu ahalko da aurretik, hilabeteko epean.

Probak egin beharreko egunean ez bada ebatzi aurkeztutako errekurtsoa, doakien pertsonak azterketa egin ahalko dute, baina ez du baliorik izango, baldin eta aipaturiko errekurtso hori ezetsi egiten bada.

Bosgarrena.—Kalifikazio-epaimahaia

1.— Oposizio-lehiaketaren probak eta merezimenduak ezarri, gauzatu eta ebaluatze xedez, bai eta parte hartuko duten pertsonak hautatzeko ere, kalifikazio-epaimahai bat eratuko da, uztailaren 17ko 4/1992 Legearen (Euskal Herriko Poliziari buruzkoa) eta uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuaren xedapenen arabera, epaimahaiburu bat, lau epaimahaikide eta idazkari bat izango dituen.

Deialdian eskatzen diren hizkuntza-eskakizunak egiaztatze probetan, HAEEn proposamenez izendaturiko pertsona bat egongo da Kalifikazio-epaimahaian.

Epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkoen izenen zerrenda erakundearen iragarki-oholean eta webgunean argitaratuko da, alkateak haiek izendatu eta gero.

Otsailaren 28ko 4/2005 Legeari jarraituz, haren osieran emakumeak eta gizonak orekaz ordezkaturik egongo dira.

2.— Kalifikazio-epaimahaiaren jarduna kide anitzeko organoen funtzionamenduari buruzko arauen arabera izango da.

Kalifikazio-epaimahaia osatzen duten pertsonen aplikagarriak izango zaizkio urriaren 1eko 40/2015 Legeko (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa) 23. eta 24. artikuluan jasotako abstenitzeko eta errekusatzeko arrazoiak. Epaimahaia osatzen duten pertsonen dagozkien kalte-ordainak jasoko dituzte zerbitzuen ondorioz, bertaratzearen ondoriozkoak barne, arloko araudiari jarraituz.

3.— Kalifikazio-epaimahaiak gauzatu eta ebaluatuko ditu hautapen-sistema eratzen duten probak; hala, erabateko autonomia funtzionalez jardungo du, prozeduraren objektibotasunaren ardura izango du, eta deialdiaren oinarriak betetzen direla bermatuko du.

4.— Kalifikazio-epaimahaiak erabaki ahalko du bere lanetara pertsonal aholku-emaila edo espezialista ekartzea, hautapen-sistema osatzen duten proba guztietarako edo baten baterako; ekarritako pertsona horiek aholku eta laguntza teknikoa ematera mugatuko dira, beren espezialitatetako jarduna betez.

5.— Kalifikazio-epaimahaiak neurri egokiak hartuko ditu, oposizio-faseko azterketak, epaimahaiaren aurrean irakurtzekoak ez diren idatzizkoak zehazki, izangaien nortasuna jakin gabe zuzen daitezzen.

6.— Kalifikazio-epaimahaiak beharrezko neurriak hartu ahalko ditu oinarri hauetan aurreikusten ez den orotan hautapen-sistema aurrera eramateko, eta oinarriaren interpretazio eta aplikazioaren inguruan sortzen diren auzi guztiak ebazteko, bai eta bere eginkizunak berak

betetzeko ere. Era berean, Kalifikazio-epaimahaiak erabakiko ditu arau hauen aplikazioan sortutako zalantzak, halakorik sortuz gero, eta aurreikusi gabeko kasuetan zer egin argituko du.

7.– Kalifikazio-epaimahaiak ezingo du deialdiko lanpostuak baino izangai gehiago hautatu, eta muga hori errespetatzen ez duten proposamenak erabat deusezak izango dira.

8.– Probak edo azterketak egiteko datak eta halakoen emaitzak jakinarazteko, Kalifikazio-epaimahaiak hartzen dituen erabakiak erakundearen iragarki-oholean eta webgunean jarriko dira jendaurrean.

9.– Jakinarazpenen eta gainerako gorabeheren ondorioetarako, Kalifikazio-epaimahaiaren helbidea izango da Leioako Udaleko Giza Baliabideen Sailarena: Elexalde 1, 48940 Leioa.

Seigarrena.– Oposizioa.

Oposizioan honako proba hauek egingo dira:

1.– Lehen proba, nahitaezkoa eta baztertzaila, ezagutzak neurtzeko proba bat izango da; test erako galde-sorta bati erantzun beharko zaio idatziz.

Haren edukiak ezarriko dira oinarri hauen I. eranskin gisa erantsita datorren gai-zerrendan jasotakoaren arabera.

Test erako galde-sortako galdera bakoitzak lau aukera izango ditu erantzuteko, eta haien artean bakarra izango da zuzena.

Proba honetan, erantzun oker bakoitza zigortuko da erantzun zuzen bakoitzari ematen zaion balioaren % 0,333rekin. Erantzun gabeko galderek ez dute zigorrik izango.

Proba hau 0-20 punturekin balioztatuko da, eta 10 puntuko gutxienekoa lortzen ez dutenak automatikoki baztertuko dira.

Hautapen-sistemaren bideratze egokia helburu, Kalifikazio-epaimahaiak, eska daitekeen gutxieneko maila nahiz proba honetan erakutsitako ezagutza-maila aintzat hartuta, eta izangaien nortasuna jakin baino lehen, proba gainditzeko behar den gutxieneko puntuazioaren muga erabaki ahalko du, eta erabaki hori jendaurrean jakinaraziko du. Kasu horretan, proba honen puntuazioa kalkulatzeko, aurreko paragrafoan deskribaturikoaren arabera, Kalifikazio-epaimahaiak formula hau erabiliko du:

$$IPB = (PB_{max} / 2) \times (1 + (PZ - m) / (PZ_{max} - m))$$

Non:

IPB = Izangaiak lortutako puntuazio bihurtua.

PB_{max} = Probaren gehieneko puntuazio bihurtua (deialdiaren oinarrien arabera, proban gehienez eskura daitekeen puntuazioa: 20 puntu).

PZ = Izangaiak lortutako zuzeneko puntuazioa:

PZ = Erantzun zuzenen kopurua – (erantzun okerren kopurua x 0,333).

m = Epaimahaiak proba gainditzeko ezarritako gutxieneko puntuazio-muga.

PZmax = Probaren gehieneko zuzeneko puntuazioa (proban gehienez lor daitekeen zuzeneko puntuazioa = erantzun guztiak ongi dituen azterketa baten erantzun zuzenen kopurua).

2.- Bigarren proba, nahitaezkoa eta baztertzaila, ezagutzak neurtzeko proba bat izango da; test erako galde-sorta bati erantzun beharko zaio idatziz.

Haren edukiak ezarriko dira oinarri hauen I. eranskin gisa erantsita datorren gai-zerrendako 35. gaitik 38. gaira bitartekoen arabera.

Test erako galde-sortako galdera bakoitzak lau aukera izango ditu erantzuteko, eta haien artean bakarra izango da zuzena.

Proba honetan, erantzun oker bakoitza zigortuko da erantzun zuzen bakoitzari ematen zaion balioaren % 0,333rekin. Erantzun gabeko galderak ez dute zigorrik izango.

Proba hau 0-10 punturekin balioztatuko da, eta 5 puntuko gutxienekoa lortzen ez dutenak automatikoki baztertuko dira.

Hautapen-sistemaren bideratze egokia helburu, Kalifikazio-epaimahaiak, eska daitekeen gutxieneko maila nahiz proba honetan erakutsitako ezagutza-maila aintzat hartuta, eta izangaien nortasuna jakin baino lehen, proba gainditzeko behar den gutxieneko puntuazioaren muga erabaki ahalko du, eta erabaki hori jendaurrean jakinaraziko du. Kasu horretan, proba honen puntuazioa kalkulatzeko, aurreko paragrafoan deskribaturikoaren arabera, Kalifikazio-epaimahaiak formula hau erabiliko du:

$$IPB = (PB_{max} / 2) \times (1 + (PZ - m) / (PZ_{max} - m))$$

Non:

IPB = Izangaiak lortutako puntuazio bihurtua.

PBmax = Probaren gehieneko puntuazio bihurtua (deialdiaren oinarrien arabera, proban gehienez eskura daitekeen puntuazioa: 10 puntu).

PZ = Izangaiak lortutako zuzeneko puntuazioa:

PZ = Erantzun zuzenen kopurua – (erantzun okerren kopurua x 0,333).

m = Epaimahaiak proba gainditzeko ezarritako gutxieneko puntuazio-muga.

PZmax = Probaren gehieneko zuzeneko puntuazioa (proban gehienez lor daitekeen zuzeneko puntuazioa = erantzun guztiak ongi dituen azterketa baten erantzun zuzenen kopurua).

3.- Hirugarren proba: nahitaezkoa eta baztertzaila, proba psikoteknikoa izango da, izangaien gaitasunak ebaluatzeko helburuarekin. Proba hau 0-10 punturekin balioztatuko da. Bigarren proba honek lau azterketa izango ditu:

- a) Arrazoibide-azterketa.
- b) Pertzepzio-gaitasunen azterketa (identifikazioa, desberdintzea...).
- c) Espazio-gaitasunen azterketa.
- c) Hitzeko gaitasunen azterketa.

Azterketa bakoitzean, test erako galde-sorta bati erantzun beharko zaio idatziz.

Test erako galde-sorta bakoitzeko galdera bakoitzak lau aukera izango ditu erantzuteko, eta haien artean bakarra izango da zuzena.

Azterketa bakoitzean, erantzun oker bakoitza zigortuko da, erantzun zuzen bakoitzari ematen zaion balioaren % 0,333rekin. Erantzun gabeko galderek ez dute zigorrik izango.

Proba hau gainditzeko, 5 puntuko gutxieneko puntuazioa lortu beharko da, lau azterketak batuta.

Hautapen-sistemaren bideratze egokia helburu, Kalifikazio-epaimahaiak, eska daitekeen gutxieneko maila nahiz proba honetan erakutsitako ezagutza-maila aintzat hartuta, eta izangaien nortasuna jakin baino lehen, azterketa bakoitza gainditzeko behar den gutxieneko puntuazioaren muga erabaki ahalko du, eta erabaki hori jendaurrean jakinaraziko du. Kasu horretan, azterketa bakoitzaren puntuazioa kalkulatzeko, aurreko paragrafoan deskribaturikoaren arabera, Kalifikazio-epaimahaiak formula hau erabiliko du:

$$IPB = (PB_{max} / 2) \times (1 + (PZ - m) / (PZ_{max} - m))$$

Non:

IPB = Izangaiak lortutako puntuazio bihurtua.

PB_{max} = Azterketaren gehieneko puntuazio bihurtua (deialdiaren oinarrien arabera, azterketan gehienez eskura daitekeen puntuazioa: 10 puntu).

PZ = Izangaiak lortutako zuzeneko puntuazioa:

PZ = Erantzun zuzenen kopurua – (erantzun okerren kopurua x 0,333).

m = Epaimahaiak azterketa gainditzeko ezarritako gutxieneko puntuazio-muga.

PZ_{max} = Azterketaren gehieneko zuzeneko puntuazioa (azterketan gehienez lor daitekeen zuzeneko puntuazioa = erantzun guztiak ongi dituen azterketa baten erantzun zuzenen kopurua).

4.– Laugarren proba, nahitaezkoa eta baztertzaila, proba psikoteknikoa izango da. Proba hau 0-10 punturekin balioztatuko da. Hirugarren proba honek bi azterketa izango ditu, biak nahitaezkoak eta baztertzailak:

a) Nortasun-testa, nortasun orokorraren bereizgarriak ebaluatzeko, bai eta hautapen-prozeduran parte hartzen dutenen egokitasunik ezaren edo egokitu ezinaren adierazleak ere. Azterketa hau 0-6 punturekin balioztatuko da, eta 3 puntuko gutxienekoa lortzen ez dutenak automatikoki baztertuko dira.

b) Nortasun-testa, lan-jarduerari loturiko jokabideak neurtzeko. Azterketa hau 0-4 punturekin balioztatuko da, eta 2 puntuko gutxienekoa lortzen ez dutenak automatikoki baztertuko dira.

Bi azterketek deialdiko postuaren lanbide-profila izango dute erreferentziatzen.

Hirugarren proba honen bi azterketetan lortutako datuak era instrumentalean erabili ahalko dira geroagoko beste proba batzuetan.

5.– Bosgarren proba, nahitaezkoa eta baztertzaila, gorputz-gaitasuneko proba izango da. Proba hau 0-10 punturekin balioztatuko da. Deialdi honen II. eranskinean jasotako lau ariketak

egin beharko dira, eta halakoak berariaz ezarritako baremoen arabera balioztatuko dira; baremo horiek ere II. eranskinean daude zehazturik.

Proba hau gainditzeko, 1,25 puntuko gutxieneko puntuazioa lortu beharko da hura osatzen duten lau ariketetako bakoitzean, eta 5 puntuko gutxieneko puntuazioa, lau ariketak batuta.

Ariketa fisikoak haietan parte hartzen dutenen erantzukizun hutsaren pean egingo dira, eta parte-hartzaileek kirol-ekipamendu egokia daramatela agertu beharko dute.

6.- Seigarren proba, nahitaezkoa eta baztertzaila, elkarrizketa pertsonal bat izango da, izangaien jokabidezko eta gaitasunezko egokitasuna zehaztekoa, deialdiko postuaren lanbide-profilaren funtzioak eta zereginak betetzeari dagokionez. Proba hau 0-20 punturekin balioztatuko da, eta 10 puntuko gutxieneko puntuazioa lortu beharko da gainditzeko.

Elkarrizketa egin aurretik, prozesuko parte-hartzaileek curriculum vitae sinplifikatu bat bete beharko dute, eskura jarriko den formatu normalizatu batean; ez da puntuagarria izango, eta elkarrizketa bera egiteko lagungarritzat baino ez du balioko.

Zazpigarrena.- Lehiaketa.

1.- Lehiaketa-faseko kalifikazioa oposizioa gainditu duten pertsoneri baino ez zaie aplikatuko.

2.- Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den eguna baino lehen norbereganaturiko merezimenduak soilik ebaluatu ahalko dira, deialdiaren oinarrietako bigarren klausulan, parte hartzeko baldintzen artean, j) letran ezartzen den salbuespenarekin.

3.- Lehiaketa-fasea ez da baztertzaila izango, eta fase horretan lortutako puntuak ezingo dira kontuan hartu oposizio-faseko probak gainditzeko.

4.- Lehiaketa-fasean, honako hauek balioztatuko dira:

a.- Udaltzaingoko oinarrizko eskalako agente gisa udaltzaingoetan egindako zerbitzuak, hain zuzen, 0,008 puntu zerbitzua egin den eguneko, 20 puntura arte gehienez. Egindako zerbitzuak eskabidean alegatu beharko dira, eta interesdunek egiaztatu egin beharko dituzte, dagokion toki-administrazioaren ziurtagiriaren bidez, abenduaren 26ko 70/1978 Legearen (Administrazio Publikoko Aurretiko Zerbitzuak Aitortzeari buruzkoa) I. eranskinean jasotako eredia erabiliz.

b.- Prestakuntzako edo hobekuntzako ikastaroak. Prestakuntzako edo hobekuntzako ikastaro homologatuengatik, betiere zentro ofizialetan eginikoak eta deialdiko lanpostuan bete beharreko funtzioekin zuzeneko lotura duten gaietako buruzkoak direnean. Ikastaroak egiaztatu egin beharko dira diploma bidez eta/edo bertaratze-ziurtagiriaren bidez eta/edo, hala dagokionean, aprobetxamendu-ziurtagiriaren bidez, halakoetan, nahitaez, ikastaroen iraupeneko irakastordua jasota. Atal hau gehienez 10 punturekin balioztatuko da, era honetan:

-20 ordu arteko iraupena duten ikastaroak: 0,25 puntu.

-21 eta 50 ordu bitarteko iraupena duten ikastaroak: 0,50 puntu.

-51 eta 100 ordu bitarteko iraupena duten ikastaroak: 0,75 puntu.

-101 ordu baino gehiagoko ikastaroak: 1,00 puntu.

Administrazio Publikoko Eskolek (HAEE, NAPI, HAEI) eta zentro ofizialek antolaturiko prestakuntzako edo hobekuntzako ikastaroak balioztatuko dira, bertaratze-ziurtagiria haiexek emandakoa baldin bada, betiere. Horren ondorioetarako, zentro ofizialtzat joko dira administrazio publikoak, unibertsitateak, Hezkuntza Ministerioaren edo autonomia-erkidegoetako hezkuntza-sailen mendeko zentroak, eta ministerioak, merkataritza-ganberak edo elkargo ofizialak. Prestakuntzako eta hobekuntzako ikastarotzat joko dira unibertsitateek edo beste zentro ofizial batzuek emandako masterrak.

Ez dira balioztatuko akademia pribatuak emandako ikastaroak, ez eta fakultate edo eskola baten ikasketa-plan ofizialetako irakasgaiak dagozkienak ere.

c.-Kondekorazio eta sariak: Gehienez 2 punturekin balioztatuko dira, honako baremo hauek aintzat harturik:

.-Banakako ohorezko aipamenak: 1,00 puntu.

.- Taldekako ohorezko aipamenak: 0,50 puntu.

5.- Ezingo dira inola ere balioztatu eskabidean behar bezala alegatu gabeko merezimenduak.

Zortzigarrena.— Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzea eta euskararen jakite-maila balioztatzea.

1.— Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzea:

Prozesuan parte hartzen duten pertsonak agiri ofizial bidez egiaztatu ahalko dute hizkuntza-eskakizunak betetzen dituztela, edo berariazko proba edo proben bidez.

Nahitaezkotasun-data igarota daukaten lanpostuak bete nahi dituztenek agiri bidez egiaztatu ahalko dute badutela 2. hizkuntza-eskakizuna, edo goragoko maila bat (Europako Kontseiluak onarturiko Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-2 maila edo goragokoa), edo hautapen-prozesu honetan antolaturiko egiaztatze-probak gainditu beharko dituzte, haien deialdia egiten denean.

1.1.— Agiri bidez egiaztatzea.

Hautapen-prozesu honen barruan, hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba egiten den egunera arte egiaztatu ahalko da hura agiri bidez.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila horien baliokide diren titulazioak azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan (euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzekoa) daude jasota, bai eta apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan ere (euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuestekoa).

1.2.— Berariazko proba bidez egiaztatzea.

Eskaintzen diren lanpostuetan ezarritako hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko, borondatezko proba bat edo batzuk egingo dira, Europako Kontseiluak onarturiko Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-2 mailari dagokion zailtasunarekin (2. hizkuntza-eskakizuna).

Deialdian eskatzen diren hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetan, HAEEn proposamenez izendaturiko pertsona bat egongo da Kalifikazio-epaimahaian.

Proba hori edo horiek egiteko eguna, ordua eta tokia bosgarren oinarrian ezarritako moduan jarriko dira jendaurrean, Kalifikazio-epaimahaiaren erabaki baten bidez.

2.– Euskararen jakite-maila merezimendutzat balioztatzea.

Nahitaezkotasun-data igaro gabeko 2. hizkuntza-eskakizuna (B-2 maila) ezarrita duten lanpostuak bete nahi dituzten izangaien jakite-maila honako baremo honen arabera balioztatuko da:

– Europako Kontseiluak onarturiko Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-1 maila: 6 puntu.

– Europako Kontseiluak onarturiko Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-2 maila: 10 puntu.

Euskararen jakite-maila egiaztatzeko, borondatezko proba bat edo batzuk egingo dira, Europako Kontseiluak onarturiko Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-1 eta B-2 mailai dagokien zailtasunarekin.

Euskararen jakite-maila egiaztatzeko probetan, HAEEn proposamenez izendaturiko pertsona bat egongo da Kalifikazio-epaimahaian.

Kalifikazio-epaimahaiak dagozkien puntuak emango dizkie Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko aipatutako mailen baliokide diren titulazioak dituztenei, aurreko atalean ezarritako proba eta probak egiteko beharrik gabe.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila horien baliokide diren titulazioak azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan (euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzekoa) daude jasota, bai eta apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan ere (euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuestekoa).

Halaber, euskararen jakite-maila egiaztatzeko proba egiten den egun berean bertan onartuko da hautapen-prozedura honetan parte hartzen duten pertsonen lortutako euskararen jakite-maila agiri bidez egiaztatzea.

Proba hori edo horiek egiteko eguna, ordua eta tokia Udalaren iragarki-oholean eta webgunean jarriko dira jendaurrean, Kalifikazio-epaimahaiaren erabaki baten bidez.

Bederatzigarrena- Oposizio-lehiaketa gainditu dutenen behin-behineko zerrenda.

1.– Oposizio-lehiaketaren gutziko puntuazioa izango da bi faseetan lortutako puntuazioen batura, euskararen jakite-maila merezimendutzat ebaluatzean ateratakoa gehiturik, hala gertatzen den kasuetan, eta izangaien lehentasun-ordena ezarriko du. Lehentasun-ordenan puntu-berdinketarik gertatuz gero, otsailaren 18ko 4/2005 Legean (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa) jasotako irizpidearekin bat etorritik ebatziko da. Berdinketak badirau, oposizio-ko lehen proban puntuazio handiena eskuratutakoaren alde ebatziko da; bigarrenik, Leioako Udalean zerbitzuko denbora gehiagoz jardun duenaren alde; hirugarrenik, EAEko Administrazio Publikoan zerbitzuko denbora gehiagoz jardun duenaren alde; laugarrenik, beste

administrazio publiko batzuetan zerbitzuko denbora gehiagoz jardun duenaren alde eta, azkenik, adinez nagusiagoa denaren alde.

Kalifikazio-epaimahaiak hauek onartu, eta jendaurrean jarriko ditu:

a) Gaingitu duten pertsonen behin-behineko zerrenda, kalifikazioen arabera, puntuazio-ordenan, nahitaezkotasun-data igarotako hizkuntza-eskakizuna baldintzatzen duten lanpostuei dagokienez.

a) Gaingitu duten pertsonen behin-behineko zerrenda, kalifikazioen arabera, puntuazio-ordenan, nahitaezkotasun-data igaro gabeko hizkuntza-eskakizuna baldintzatzen ez duten lanpostuei dagokienez.

2.- Aurreko paragrafoan aipatutako behin-behineko zerrenda argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, 10 egun balioduneko epean, interesdunek egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkeztu ahalko dituzte, eta behin betiko zerrenda onartu baino lehen ebatziko dira erreklamazio horiek.

3.- Epe hori igaro ondoren, epaimahaiak, honako hauek onartu eta jarriko ditu jendaurrean Udalaren iragarki-oholean eta webgunean, eta Alkatetzari helaraziko dizkio:

a) Behin-behineko zerrenda, kalifikazioen arabera, puntuazio-ordenan, nahitaezkotasun-data igarotako hizkuntza-eskakizuna baldintzatzen duten lanpostuei dagokienez.

a) Behin betiko zerrenda, kalifikazioen arabera, puntuazio-ordenan, nahitaezkotasun-data igaro gabeko hizkuntza-eskakizuna baldintzatzen ez duten lanpostuei dagokienez.

Era berean, agintaritzaren horri azken bilkuraren akta helaraziko dio, izendatze-proposamen osagarri gisa, eta bertan jasota egongo dira, puntuazio-ordenan, proba guztiak gaingitu arren deialdiko lanpostuen kopurutik kanpo geratu diren oposiziogile guztiak; horren helburu bakarra izango da hautapen-prozesua bukatu arte sortutako postu hutsak betetzea, halakorik sortuz gero.

Hamargarrena.— Dokumentuak aurkeztea

Proposatutako oposiziogileek, 15 egun naturaleko epean, gaingitu dutenen zerrenda argitaratzen denetik zenbatzen hasita, korporazioaren HAZn aurkeztuko dituzte hautapen-prozesuan parte hartzeko deialdiaren oinarrietan eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak:

1. Nortasun-agiri nazionalaren fotokopia, behar bezala konpultsatua, edo dagokion Erregistro Zibilak egindako jaiotza-ziurtagiria, eta gidabaimenaren fotokopia, behar bezala konpultsatua.

2. Kargu publikoak betetzeko desgaituntzarik ez izatearen eta Administrazio Publikoaren zerbitzutik diziplina-espediente bidez banandu ez izanaren adierazpena.

3. 3.- Abenduaren 26ko 53/1984 Legeak (Administrazio Publikoan lanean ari diren langileen bateraezintasunari buruzkoa) jasotzen dituen bateraezintasun-kausetako baten pean ez egotearen adierazpena.

4. Funtzioa normaltasunez aurrera eramatea eragozteko moduko gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik ez izatearen osasun-ziurtagiria, Korporazioak esleitutako medikuntza-

zerbitzuek emana, otsailaren 17ko 36/2004 Dekretuaren eranskinean ageri diren bazterketen baremoan ezarritakoaren arabera; horretarako, izangaiei osasun-azterketa egingo zaie, bigarren oinarriko e) letran ezarritako baldintza betetzen den egiaztatzeko, eta egoki iritzi bezainbeste osasun-azterketa egin ahalko dira, medikuntzako bazterketen taularen araberako egokitasuna egiaztatzeko, oro har aintzat harturik, hautapen-prozedura guztian zehar. Osasun-ziurtagiria aurkaratzen bada, interesdunak onartu egiten du ziurtagiri hori egiteko oinarritzat erabilitako osasun-txostenak dagokien organoen esku jartzeko, aurkezturiko erreklamazioa azter dezaten, salbu eta interesdunaren ohorerako eskubideari eragiten badiote.

5. 6/1989 Legeko (Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa) 43. artikuluan xedaturik dagoenari jarraituz, lanpostuak lortu ahal izateko eskatzen den tituluaren fotokopia konpultsatua, edo hura eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria.

6. Lehiaketa-fasean aurkezturiko merezimenduen fotokopia konpultsatua.

7. Deialdiaren zortzigarren oinarrian aipatzen diren ziurtagiri edo tituluetako baten fotokopia konpultsatua.

8. Deialdiaren oinarrietan eskatzen diren gainerako baldintza zehatzen agiri bidezko justifikazioa, fotokopia konpultsatuen bidez.

Adierazitako agiri horiek aurkeztea ezinezkoa bada, hori behar bezala justifikaturik betiere, zuzenbidean onartutako edozein frogabide baliatuz egiaztatu ahalko du izangaia deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituela. Funtzionario publikoak edo lan-kontratudunak direnek ez dute agiri bidez egiaztatu beharko aurreko izendapenerako frogatuak dituzten baldintzak; halakoetan, bada, haien egoera eta zerbitzu-orrietan azaltzen diren gorabeherak egiaztatzeko, mendeko diren ministerio, toki-korporazio edo organismo publikoaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

Ezinbesteko kasuetan izan ezik, baldin eta ezarritako epean proposatutako izangaiek ez badituzte agiriak aurkezten edo ez badituzte eskatutako baldintzak betetzen, ezingo dira haiek izendatu, eta deuseztaturik geldituko dira haien egintza guztiak, horrek eragotzi gabe hautapen-proban parte hartzeko eskabidean datu faltsuak jartzeagatik dagokien erantzukizuna, halakorik jarri baldin badute.

Kasu horretan, bederatzigarren oinarrian aipatzen den izendatze- edo kontratatze-proposamenera joko da, puntuazio-ordenaren araberakoa, deuseztatze horren ondorioz lanpostuetan sartzeko aukera dutenen alde.

Hamaikagarrena.– Praktiketako funtzionarioak izendatzea.

1.– Deialdiaren baldintzak betetzen dituztela behar bezala egiaztatu duten pertsona hautatuak praktiketako funtzionario izendatuko ditu Alkateak, eta izendapen hori *Bizkaiko Aldizkari Ofizialean* argitaratuko da.

Era horretan praktiketako funtzionario izendaturiko pertsonak egoera horretan iraungo dute prestakuntza-ikastaroa hasten denetik karrerako funtzionario izendatzen diren arte, edo hautapen-prozeduratik baztertu arte.

2.– Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez, prestakuntza-ikastaroaren hasiera-eguna ezarriko da, eta ebazpen hori Udalaren iragarki-oholean zein webgunean jarriko da jendaurrean.

Hamabigarrena.– Prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia.

1.– Prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia nahitaezkoak eta baztertzailerak izango dira, banaka kontuan hartuta, eta halakoak ez badira gainditzen, horrek berekin ekarriko du gaintitu ez dituen hautapen-prozeduratik baztertzea eta eskubide guztiak galtzea deialdi honi dagokion Udaltzaingoko oinarrizko eskalako agente-kategorian sartzeko.

2.– Prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia ezingo dira aldi berean gauzatu, eta haietako bakoitzaren iraupena, ez eta bien iraupen metatua ere, ezingo da izan 30 hilabetetik gorakoa.

3.– Prestakuntza-ikastaroa.

a) Prestakuntza-ikastaroa ikastaro akademiko bat izango da, nahitaezkoa eta baztertzailerak, eta haren edukiak, ebaluatzeko eta gaintzeko era nahiz iraupena ikasketa-planean eta aplikatzeko den araudian ezarritakoak izango dira.

b) Prestakuntza-ikastaroko kalifikazioak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren iragarki-oholean jarriko dira jendaurrean, bai eta Udalaren iragarki-oholean eta webgunean ere.

4.– Praktikaldia.

a) Prestakuntza-ikastaroa gaintzen dutenek praktikaldia egingo dute haien jarduera-eremuen arabera egokienak diren zentro edo instalazioetan, bai prestakuntza integrala jasotzeko, bai dagokion udaltzaingoaren polizia-zerbitzuen egitura eta funtzionamendua bereziki ezagutzeko.

b) Praktikaldia hasi aurretik, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak ebazpen bat emango du, praktikaldiaren iraupena eta balioztatze eta gaintzeko sistemak eta prozedurak ezartzeko. Ebazpen hori Udalaren iragarki-oholean eta webgunean argitaratuko da.

c) Praktikaldian zehar, eraginkortasun profesionala ebaluatuko da, udaltzaingoko oinarrizko eskalako agente-kategoriaren berezko zereginak gauzatzeari loturik. Praktikaldiaren iraupen-denboraren barruko gertakariak soilik ebaluatuko dira.

d) Praktikaldiko kalifikazioak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak jarriko ditu jendaurrean Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren iragarki-oholean, bai eta Udalaren iragarki-oholean eta webgunean ere.

Hamahirugarrena.– Hautapen-prozedurako behin betiko sailkapena eta karrerako funtzionarioak izendatzea.

1.– Hautapen-prozedurako behin betiko sailkapen-ordena hautapen-sisteman, prestakuntza-ikastaroan eta praktikaldian lortutako kalifikazioak batuz eratuko da.

2.– Praktikaldia bukatu ondoko bi hilabeteen barruan, eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak hala proposatuta, Alkatetzak, oinarri hauen arabera, hautapen-prozedura gaintitu dutenak karrerako funtzionario izendatuko ditu.

Leioako udalerriko Udaltzaingoko oinarrizko eskalako agente izendatuko dira.

3.– Izendapena indarrean den araudian xedaturik dagoen eran argitaratuko da.

